



MUSIKA

Denboraldi amaiera erromantikoa



EUSKADIKO ORKESTRA

Euskadiko Orkestra. Zuzendaria: Robert Treviño. Bakarlarria: Nikolai Lugansky. Egitaraua: Rachmaninov eta Mendelssohn-en lanak. Gasteizko Principal Antzokian, ekainaren 17an. Argazkia Kursaalean (Donostia) eskainitako programa berekoa da.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Euskadiko Orkestrak amaiera gozoa eman digu denboraldi zailaren ostean.

2020-2021 denboraldiko azken hizorduan, kutsu erromantikoa zuten bi lanek osatu zuten programa, baina garai oso ezberdinetakoak ziren, eta biek elementu bereziak zituzten.

Rachmaninov publikoak gehien maite duen konpositoreetako bat da, beharbada XX. mendeko konpositorea izanik, bere lan guztietan giro erromantikoa kutsu zinematografiko indartsuz landu zuelako. Hala ere, egia da nolabaiteko mespretxuzko aura bat ibili dela konpositore honen inguruan. XX. mendeko lehen hamarkadetan, Europako konpositore nagusiak tonalismoak aldentzen ziren eta beste adierazpide batzuk bilatzen zituzten. Hala ere, Rachmaninovek eutsi egin zion erromantizismoaren harmonia eta konposaketa ulertzeko moduari.

Baina Rachmaninoven jeinutasuna aldarrikatu behar dugu, egitura erromantikoko horrekin XIX. mendeko musikagileengandik izugarri bereizten duten ñabardura harmonikoak bilatzen jakin baitzuen. Bere lanetan hain bereizgarria den giro garaikidea ematen diote.

Bestalde, Rachmaninov lehen mailako piano-jotzailea izan zen eta pianorako egin zituen lanetan nabaritzen da, oso birtuosistikoak, baina erabat ergonomikoak dira, eskuen mugimendu eraginkorretarako ondo pentsatuak.

Aurretik esandako guztia *Paganinirengai bati buruzko Rapsodia*-n islatzen da, 1834an idatzia. Niccolò Paganini-k biolinarako egindako bariazio batzuk hartzen ditu iturri gisa, baina birtuosismo ariketa egiteaz gain, collage estetikoak ere egiten du, ñabarduraz eta umore aldatuz betea. Obra zoragarri hori gor-

puzteko Nikolai Lugansky piano-jotzaile errusiarra baino hobea den inor ez dago, teknika paregabearen, musikaltasun aberatsaren eta gertuko izaeraren jabe baita. Hori guztia interpretazioei transmititzen die, zintzotasunez eta inolako itxurakeriarik gabe.

Programaren bigarren obra Mendelssohnen *3. Sinfonia - Eskoziarra* izan zen. Hamabi urte igaro ziren 1829an konpositoreak Eskoziara egin zuen bisitarenean eta 1840ko obraren estreinaldiaren artean. Hain denbora luzean, Mendelssohn paisajista eta bidaiariaren memoriak konposizio hutsezko kontzeptio pean geratu ziren, hamarkada bat baino gehiagoz hausnartuak, eta ondorioz, egitura formal berritzaile eta irudimentsu konplexua sortu zuten.

Euskadiko Orkestrak interpretazio indartsu eta bizia egin zuen. Festaren amaiera bikaina. ●